

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARIDASKO UDALA

Behin betiko onartzea landa bideak mantentzeko tasa arautzen duen zerga ordenantza eta udal jabari publikoaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasak arautzen dituen ordenantza

Udalbatzak, 2016ko abenduaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea landa bideak mantentzeko tasa arautzen duen zerga ordenantzari eta udal jabari publikoaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasak arautzen dituen ordenantzari. Erreklamaziorik aurkeztu ez denez espediente jendaurrean egon den bitartean, zeinaren iragarkia 2017ko urtarrilaren 9ko ALHAOn (3. zk.) argitaratu zen, behin betiko onartzen dira ordenantza horiek eta, indarrean dauden xedapenetan ezarritakoa betez, osorik argitaratzen da haien testua:

LANDA BIDEAK MANTENTZEKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

1. artikulua. Xedapen orokorrak

Bat etorritik uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 15-18 bitarteko artikuluetan eta 20. artikuluko 1. idatz zatian xedatzen duenarekin, udal honek tasak ezartzen eta ordainarazten ditu udalaren eta kontzejuen titulartasuneko landa errepide eta bideak mantendu, hobetu eta kontserbatzeko zerbitzu publikoa eman eta egiteagatik.

2. artikulua. Aplikazio eremua

Ordenantza hau Navaridasko udalerri osoan aplikatzekoa da.

3. artikulua. Zerga gaia

Udalaren landa bideak mantendu, hobetu eta kontserbatzeko zerbitzu publikoa ematea.

4. artikulua. Subjektu pasiboa

Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Arabako Lurralde Historikoko zergen foru arau orokorraren 33. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, baldin eta Navaridasko udalerriko landa lurzatiren baten jabe badira.

5. artikulua. Zerga erantzuleak

Ordenantza honen ondorioz sortzen diren zerga zorren erantzule izango dira, zergadunaren ordeko gisa, landa finken gozamendunak, errentariak eta zeinahi titulu juridikoren bidez landa finken edukitza dutenak.

6. artikulua. Zerga oinarria

Zerga oinarria da finka bakoitzerako finkatutako zerga oinarria landa ondasun higiezin gainerako zergaren ondorioetarako.

7. artikulua. Zerga kuota

Zerga kuota izango da, eranskinean ezartzen denaren arabera, zerga oinarriari horretarako ezarritako kopuru finko bat aplikatuz ateratzen den kopurua, edo bi prozedura horiek batera aplikatuz ateratzen dena.

8. artikulua. Sortzapena eta zergaldia

8.1. Tasa urtero sortuko da, urtarilaren 1ean, eta zergaldia egutegiko urtea izango da.

8.2. Landa lurzatietan aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoren bat gertatzen bada, gertatu eta hurrengo zergaldian sortuko ditu ondorioak.

9. artikulua. Tasaren kudeaketa

9.1. Urtero osatuko den errolda izango da tasa kudeatzeko oinarria. Errolda horretan jasoko dira ukitutako zergadunak eta dagozkien zerga kuotak, ordenantza hau aplikatuz likidatuko direnak.

9.2. Navaridasko Udalak egingo du errolda hori. Behin egindakoan, jendaurrean erakutsiko da, iragarkia jarri udalaren iragarki oholean eta ALHAOn, eta hamabost eguneko epea egongo da erreklamazioak aurkezteko. Jendaurreko epea igarotakoan, alkatetzak erreklamazioak ebatziko ditu eta behin betiko onartuko du errolda, zeina oinarritzat hartuko baita zerga kuota-ren behin betiko likidazioa eta kobrantza agiria egiteko.

10. artikulua. Erroldako aldaketak

10.1. Subjektu pasiboek landa lurzatietan gertatzen diren aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridiko guztiak aitortu beharko dituzte.

10.2 Aitorpenak Navaridasko udaletxean aurkeztuko dira, hilabeteko epean, aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoa gertatzen den egunetik hasita. Horretarako, subjektu pasiboak erroldako aldaketaren aitorpena aurkeztuko du, eta aldaketa zertan den azalduko du.

Landa finkaren titulartasuna aldatzen denean, eskualdatzaileak baja aitorpena aurkeztu beharko du, bertan jarrita eskuratzaillearen izena eta helbidea eta aldaketaren data, eta aldaketaren arrazoia azaltzen duten dokumentuak erantsiko ditu.

Landa finkaren titulartasunaren mortis causa aldaketetan, jaraunsleak baja eta alta aitorpenak egin beharko ditu.

10.3. Egintza administratibotzat joko dira tasaren erroldan datuak erantsi, kendu edo aldatzea, ikuskapen jarduketak eta komunikazioak.

11. artikulua. Likidazioa eta ikuskapena

Ordenantza honek arautzen duen tasaren likidazioari, bilketari eta ikuskapenari dagokien guztian, eta, halaber, zerga arloko arau haustek kalifikatzeko eta zehapenak erabakitzeke, Arabako Lurralde Historikoko zergen foru arau orokorrean ezarritakoa aplikatuko da.

Azken xedapen bakarra

Ordenantza hau, bere eranskinarekin, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, 2017ko urtarilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak, eta indarrean iraungo du harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Xedapen indargabetzailea

Indargabeturik geratzen dira ordenantza honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko xedapenak.

Ordenantzaren eranskina

Tarifak:

Zerga oinarriari ehuneko 0,20ko koefizientea aplikatuko zaio.

**ZERGA ORDENANTZA, UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOAREN
EDO APROBETXAMENDU BEREZIAREN TASAK ARAUTZEN DITUENA****I. Xedapen orokorrak****1. artikulua**

Udalak tasak ezarri eta eskatuko ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatu eta aprobetxamendu bereziarengatik, ordenantza honetan ezarritako arauei jarraituz eta Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauak ezarritakoarekin bat etorriz. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza hau Navaridasko udalerri osoan aplikatzekoa da.

II. Zerga gaia**3. artikulua**

Udal jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia da zerga egitatea.

III. Subjektu pasiboa**4. artikulua**

1. Subjektu pasiboak eta, beraz, zergadunak dira Arabako Lurralde Historikoko zergen foru arau orokorreko 33. artikuluan aipatzen diren erakundeak eta pertsona fisiko eta juridikoak, baldin eta era berezian gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute tokiko jabari publikoa beren onerako.

2. Espaloietan zehar ibilgailu edo gurdientzako sarreren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik eta sarrera horiek eraiki, zaindu, aldatu edo ezabatzeagatik ezarritako tasetan, zergadunaren ordezkotzat joko dira, sarrera horiek zein finka eta lokaletara ematen duten, haien jabeak, eta aukeran izango dute kuotak kasuan kasuko onuradunei jasanaraztea.

3. Administrazio publikoek, erkidego autonomoek eta toki erakundeek ez dute tasarik ordaindu beharko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziarengatik, baldin zuzenean ustiatzen dituzten komunikabide-zerbitzu publikoei atxikitako aprobetxamenduak eta herritarren segurtasunaren edo defentsa nazionalaren zuzeneko interesen aprobetxamenduak badira.

5. artikulua

Tasak, dagozkien lizentzien titularrek ordaindu beharko dituzte edo, bestela, aprobetxamenduaz onura ateratzen dutenek.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak**6. artikulua**

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorren arabera emango dira.

V. Zerga oinarria**7. artikulua**

Jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia gertatzen den unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinean adierazitakoaren arabera.

VI. Kuota

8. artikulua

1. Zerga kuota izango da, eranskinean ezartzen denaren arabera, zerga oinarriari tarifa bat edo ezarritako kopuru finko bat aplikatuz ateratzen dena, edo bi prozedura horiek batera aplikatuz ateratzen dena.

2. Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia dela-eta tokiko jabari publikoa apurtu edo hondatzen bada, dagokion tasaz gain, egin beharreko berreraikitze edo konponketa gastuen kostua osorik itzuli beharko du onuradunak, baita horri dagokion zenbatekoa aldeztu aurretik gordailutu ere.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalte ordaina jasoko du, apurtutako ondasunek edo hondatutako kalteek egiten dutenaren parekoa.

Udalak ezin izango ditu barkatu, ez zati batean ez osorik, paragrafo honetan aipatutako kalte-ordain eta itzulketak.

VII. Sortzapena eta zergaldia

9. artikulua

1. Zerga egitatea nolakoa, hara noiz sortuko den herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia dela kausa ordaindu beharreko tasa: edo erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean, eta, kasu horretan, dagokion zenbatekoaren zati bat edo guztirakoa aldeztu aurretik gordailutzeko eska daiteke; edo jarduera edo espedientearen abiarazten duen eskabidea aurkeztzen denean, eta orduan jarduera ez da gauzatuko edo espedientearen ez da izapidetuko dagokiona ordaindu arte.

2. Tasaren izaera materiala dela-eta tasa aldiari aldiari sortu behar bada, urte bakoitzaren urtarilaren 1ean sortuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du, salbu erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasi edo amaitzen den kasuetan, zeren orduan zergaldia egokitu egingo baita halaxe, eta kuota ere heinean, eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3. Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion kausen ondorioz jabari publikoaren erabilerako edo aprobetxamendurako eskubidea erabili eta garatzen ez bada, subjektu pasiboak dagokion zenbatekoa itzultzeko eskatu ahalko du.

VIII. Likidazioa eta diru sarrera

10. artikulua

Kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa udal administrazioak egingo du, eta likidatutako kuota dirutan ordaindu beharko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskinean jasota dauden arauen arabera.

IX. Tasen kudeaketa

11. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko zergen foru arau orokorrak xedatutakoa aplikatuko da ordenantza honek araututako zergen likidazioari, bilketari eta ikuskaritzari dagokion guztian eta egoera bakoitzaren gaineko zigorrek zehazteari dagokion guztian.

X. Azken xedapena

Ordenantza honi eta beraren eranskinari 2016ko abenduaren 12an eman zitzaion hasierako onarpena, eta behin betiko argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean, harik eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen den arte.

A) Epigrafea: Udalaren bide publikoetako lurzoruen, lur gaineko espazioaren eta lurpearen beste edozein erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia.

1. Hornidura zerbitzuen enpresa ustiatzaileek udalaren bide publikoen lurzorua, lurpearen edo lur gaineko espazioaren aprobetxamendu berezia.

Ordaintzeko betebeharra dutenak hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresak direnean eta hornidura zerbitzu horrek herritar guztiei edo haietako askori eragiten dionean, tasaren zenbatekoa izango da enpresa horiek urtean udalerrian eskuratzen dituzten fakturazioko diru-sarreraren ehuneko 1,50, dagokien hitzarmenean xedatutakoaren arabera.

Tarifa aplikatzeko arauak.

Aurrekoetan sartzen ez diren kasuetan, udalak ezarriko du prezioaren zenbatekoa, kontuan hartuz zer ezaugarri eragiten dien, inola ere ezingo delarik izan epigrafe honen 1. zenbakian ezarritako tarifak aplikatuz legokiokeena baino txikiagoa."

Navaridas, 2017ko maiatzaren 11

Alkatea

MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ